

noaua

**“Hurrek gurasoen
hizkuntza ohiturak
beregatzen dituzte”**

**Jendetza batu zen
Usurbil FT-ren
urteurren festan**

**#Noauak20
Kulturaldia,
begibistan**



**Ezezkoa nagusitu zen
asteburuko herri galdeketan**



URTINEA



igandetan irekia!

SANTU GUZTIEN EGUNERAKO AUKERA ZABALAK

San Esteban auzoa, Usurbil 943 36 22 55



FUNERARIA GONZALEZ

EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**·EDOZEIN ASEGURU IZANDA
(OCASO, SANTALUCIA...)
HERIOTZA GERTATZEN BADA,
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).**

**ASEGURUAREKIN IZAPIDE GUZTIETAZ
ARDURATZEN GARA ZUZENEAN,**
(MOMENTU LATZ HAUETAN ASEGURUAREN POLIZA ZENBAKIA
EDO ERREZIBOIA EDO HORRELAKORIK EZ DUGU BEHAR,
ASEGURUAREKIN ZUZENEAN IZAPIDEAK EGITEN DITUGU)

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK
·Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo
beilatokia DOAN (gure eskutik)

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es

ETXEBIZITZA ENKANTEAN




**Eskaera egiteko
azken eguna:
ABENDUAK 20**

Lizitazioko gutxienezko prezioa:
106.323'45 euro

Lizitazioko gehienezko prezioa:
132.823'45 euro

Informazio gehiagorako: **943371951**
edo kontratazioa@usurbil.eus



serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL

Albiste iruditan

Sasoi mantentzeko ibilian

Harrera jendetsua izan du, "Goazen kalera!" Usurbilgo Udalak hainbat eragilerekin elkarlanean antolatu eta urriaren 19an abiatu zuten egitasmoak. Ohitura osasuntsuak sustatu eta sasoi mantentzen laguntzea du helburu. Herritar orori zuzendua dagoen arren, bereziki adinekoei eta dibertsitate funtzionala dutenei zuzendua dago.

Aurrerantzean, ekainera arte, asteazken goizero 11:00etan Artzabalera gerturatuta parte har dezakezue. Herrian zehar ibilaldi ezberdinak egiteko aukera izango da lagun artean, aurreko asteazkenean bezala giro atsegina bada. Eguraldi txarra eginez gero, ariketa fisikoak egingo dira Artzabal barruan.



Asteazkeneko goizeko 11:00etan abiatuko dira Artzabaldik.

Laburrean

Peña Zubeldiakoen bazkaria

Azaroaren 19an, larunbatez, Aginaga Sa-gardotegian. Txartelak aurrez salgai Txiriboga tabernan 28 eurotan, azaroaren 17ra arte.

1952an jaiotako bazkaria, abenduaren 4an

Saizar Jatetxean egingo dute. Izena emateko deitu alde aurretik, azaroaren 22a baino lehen, 943 361 380 telefono zenbakira. "Animatu!", luzatu dute gonbita.

Azaroaren 19an, 1972koen kinto bazkaria

Azaroaren 10a baino lehen eman behar da izena. ES38 0182 6043 2102 0151 4132 (BBVA) kontu zenbakian 40 euro ingratsatu eta izen abizenak ipini.

noqua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaua.eus // www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Maialen Unanue

Hitza hartzea

Korri!! Esprint txiki batzuk bota genituen hilaren 16an, erraustegiaren aurkako lipdub-a grabatzen, nor bere zatia bukatu eta frontoian elkartzeko. Udaletxean, Erraustegia Erabakia plataformak zenbat jende bildu zuen ikusita, ez genuen sinesten hiru saiakera nahikoak izango zirenik lipdub-a guztiz ongi osatzeko. Sekulako giroa izan zen, festa usaina eta umorea soinean. Eta emaitza, ederra. Zorionak, beraz, antolatzaileei.

Harago joan da, ordea, taldea. Eta, hala, usurbildar eta zubietarrek lehenengo aldiz esan ahal izan genuen, hautetsontzien bidez, ez dugula erraustegirik nahi. Emaitzak esanguratsuak izan dira: Usurbilen, bozkatu dutenen %97,3k egin zuen horren kontra, eta Zubietan, %99,6k. Parte hartzean, Usurbilen %43,6 eta Zu-

bietan %64,7. Datu apala da, baina zenbait faktore kontuan hartuta, ez hainbeste: hauteskunde arruntetan %65eko parte hartzea egoten bada (gutxi gorabehera), kontuan hartu behar da normalean abstentziora jotzen dutenek nekez hartuko dutela parte halako galdeketa batean, eta galdeketa zaezagatik (ez loteslea) normalean parte hartzen duten zenbaitek ere ez dutela bat egin galdeketa. Beraz, pozik egoteko modukoa dela uste dut.

Egin aurretik ere, jakin bagenekien ezezkoa gailenduko zela, azken urteetan garbi erakutsi baitu herri honek bestelako mobilizazio, ekimen eta abarren bidez. Baina herri galdeketa aukera eman digu, behingoagatik, gure iritzia boto bidez plazaratu eta datuetara ekartzeko. Argi eta garbi esan dugu usurbildar eta zubietarrek ez dugula erraustegirik nahi, ez Zubietan ez inon.

Ez da galdeketa loteslea izan, ados. Lehenagotik ere jakina zen usurbildar eta zubietarrek ez dugula erraustegirik nahi, ados. Atez atekoa ezarri eta horrekin aurrera egiteak bakarrik nahiko garbi erakusten du aspalditik, ados. Baina erresistentziarik ez jartzeak partida galtzea dakarrenez, ezin geldirik egon erraustegia lasai eta eroso eraiki dezaten: jokoan dagoena herritarren osasuna eta etorkizuna da. Zerbaiti ez zaie batere inportari hori guztia, zerrekin eta zaborrarekin egindako negozio bati esker hemendik Rio de Janeiroko faborea egingo baitiete zenbait enpresari; eta ez enpresariei bakarrik, baita euren buruei ere, politikagintza uzten dutenean poltsikogintzari irekitzen baitiote zenbaitek atea.

Ezin uka galdeketa heldzeko bidea luzea izan dela. Urte hasieran, sinadura bilketa ba-

ten ostean, Usurbilgo Udalari eskatu zion Erraustegia Erabakiak, lehenengo, galdeketa antolatzeko. Eskaera onartu eta bideratu zuen udalak, baina ezezkoa jaso zuen Madrildik. Eta galdeketa egiteko lekukoa herritarrei itzuli zien udalak. Horregatik, hain zuzen ere, oztopo ugari izan dituzte antolatzaileek, eta hala azpimarratu zuten botoen kontaketa amaitzen ari zirela, frontoian. Besteak beste, zenbait herritar bozkatu ezinda gelditu ziren: guztiei barkamena eskatu zieten.

Eta, horren guztiaren gainetik, eskerrak eman zizkieten lanean aritutako herritar eta boluntario guztiei: bai galdeketa bai lipdubean dena primeran joateko lanean aritu zirenei: "Harro egoteko moduko egunak izan dira". Haiei esker hartu dugu hitza zubietarrek eta usurbildarrek.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Luis Aranalde | **Maialen Unanue** | Luken Arkarazo | Idoia Torregerai

Ika-Mika

Herriko pilotarien alde

Euskal pilotak, badu oinarri historiko-kulturala Euskaldunontzat. Joko tradizionala izatetik, egun kirol arautua izatera eraldatu da. Egitura antolatzaile desberdinei esker, federazioak eta pilota eskolak batetik eta jarduera profesionala bultzatzen duten enpresak bestetik, esan genezake bizi iraupena bermatua duela.

Modu berean, historikoki, Euskal Herriko herri txikiak umeen haurtzaroa frontoiari lotuta bizi izan da. Frontoia izan da herriko plaza euskal herri gehientsuenetan, bertan denetarik jolasetan aritu gara beste aukerik ezean. Gaur egun ordea, herrian zehar baditugu jolas leku eta plaza ugari; beraz gure harremana frontoia-

rekiko ere hezi behar genuke. Frontoian pilotak izan behar du lehenetasuna, beste edozein jardueraren aurretik.

Are gehiago, jakinik, txapelketa bat jokatzeko eskatzen duen antolaketa ez dela txantxetako, onartezina da azken momentuan partidua jokatzeko behar beharrezkoa den frontoia ez dagoela libre jakin eta beste

frontoi baten bila hasi beharra, horrek guztiak dakarren nahasmena bai jokalarientzat eta baita ikuslearentzat ere oso deserosoa delarik.

Guk ere, pilota maite dugularik, gure herrian pilota sustatzen duten guztiei eta herriko pilotariei merezi duten babesa luzatu nahi diegu.

Usurbilgo EAJ-PNV

Udalak jaso du “herriaren hitza”

Udal gobernu taldearen- tzat, aurreko asteburuko galdeketa herri adierazpen argia izan zen, “entzun nahi duenak entzun dezan”. Eta herri borondatearen ordezkari gisa, “errautegiaren mamua haizatzen dutenen aurrean, herriaren hitza errespetatzen eta errespetarazten saiatuko gara”.



“2.268k errauste planta ezartzearen aurkako jarrera erakutsi zuten”.

Udalak jaso zuen debekuaren aurrean, Errautestia Erabakia herri plataformak hartu zuen galdeketa antolatzearen ardurara bere gain. Udalak ezer baino lehen, eskerrak eman nahi dizkie herri ekimena abiarazi zuten guztiei: “Denboran atzera eginda, gogora ekarri nahi dugu 1.187 herritarren sinadurak aurkeztu zirela Udalean galdeketa bat aurrera eraman genezan. Kontsulta egiteko baimena eskatu genuenean, ukatu egin zitzaigun eskubide hori. Udalak aurrera eraman ezin zuen galdeketa lekukoa herri eragileek hartu zuten, eta horrega-

tik, zorionak eta eskerrak eman nahi dizkizuegu zuzenean edo zeharka galdeketa honen presaketan aritu zareten guztioi, herriari hitza emateko leihoa zabaltzea lortu duzelako”.

Herritarren mezua, argia

Oztopoen gaintetik, hala nahi izan zuten herritarrek beren mezua “argiki azaltzeko aukera izan zutelako. Eta emaitzak ez die interpretazio okerretarako tarterik uzten errautestia egitearekin tematuta jarraitzen dutenei. 16 urtez gorako 2.317 lagunek hartu zuten parte, eta hauetatik 2.268k errauste plan-

ta ezartzearen aurkako jarrera erakutsi zuten”, Udaleko gobernu taldeak aditzera eman duenez.

“Herriaren hitza jaso dugu”

“Usurbilgo udalak jaso du herriaren hitza”. Eta, herri borondatearen ordezkari gisa, “errautegiaren mamua haizatzen dutenen aurrean, herriaren hitza errespetatzen eta errespetarazten saiatuko gara”, hala dio NOAUA!ra igorri duten prentsa oharrean. “Hala egitea dagokigu, sinesmenez eta koherentziaz. Eta hala egingo dugu”.

Langabezia

beherantz,

kontratazioa gorantz

Abuztuan baino datu hobexekoak joan den hilabeteetan. 288 langabetu zenbatu zituen Estatuko Enplegu Zerbitzuak irailean Usurbilen, abuztuan baino 7 lagun gutxiago. Beherakada gainera, emakumezko langabetuen artean eman da. Buruntzaldean eta Gipuzkoan aldiz gorantz egin du langabetu kopuruak. Bailara mailan, 21 langabetu gehiago zenbatu zituzten irailean. Gipuzkoan, 431 lagun gehiago.

Usurbilen langabeziak beherantz egin duela aipatu dugu. Azken urteotako erregistrorik baxuenetan dabil lanik gabeko herritarren kopurua. Kontratazioak aldiz azken hilabete honetan gorantz egin du. Abuztuan baino 63 lan kontratu gehiago erregistratu dira irailean. Ohi denez, ia denak aldi baterako.

Ika-Mika

Espazio publikoak konpartitzeko ariketa

Pagazpe Elkarteak “Herriko pilotariak erbestertuak” izeneko eskutitza argitaratu zuen NOAUaren urriaren 7ko alean. Ika-mika sailean atera bazen ere, ez da gure asmoa ika-mikan hastea, bai ordea gure jokabidea eta iritzia argitzea.

Irailaren 16an, ostirala, Gipuzkoako Txapelketako partiduak jokatzekoak ziren, eta Pagazpek frontoia eskatu zuen egun horretarako. Ez zen izan, ordea, frontoia eskatu zuen bakarra. Arazo horren aurrean, udaleko kirol-saila saiatu zen konponbidea aurkitzen, asteartetik hasita batzuekin eta besteekin hitz eginez. Bi eskaeren sustatzaileei planteatu

zitzaien beren ekitaldia tokiz aldatzea. Aztertu zen ea partiduak herriko beste frontoien batean joka zitezkeen, Aginagan edo Zubietan, baina biak hartuta zeuden, besteak beste Pagazpek berak palako partiduak zituelako Zubietan. Horren aurrean, eta azken aukera gisa, Pagazpetik esan zitzaigun aurkariak zizurkildarrak zirela eta Zizurkilen jokatu zitezela partiduak. Eskertu genuen jarrera hori.

Kontuak horrela, harritu egin gaitu eskutitzean esaten denak, alegia, udalak pilotari trabak besterik ez dizkiola jartzen. Gaur egun, erdiguneko, Aginagako eta Zubietako frontoien erabilera arautuaren

parte handi bat herriko pilota elkarteetan (Pagazpe eta Zubietan) eskura utzita dago.

Beste kontu bat da ea frontoiak pilotan jokatzeko bakarrik erabili behar diren. Gure iritziz, pilotaleku diren neurrian, zaindu egin behar dugu pilotarako erabiltzea, baina aldi berean onartu behar dugu hiru frontoi horiek espazio publiko estali garrantzitsuak direla, eta horien behar izugarria dugula gure jarduera sozialean. Derrigortuta gaude espazio horiek konpartitzera.

Esan behar da, bestalde, Usurbilgo herrigunearan bertan badirela beste plaza eta espazio egokiak, adibidez, dema-plaza edo Joxe Martin Sa-

gardia plaza (ateri izanez gero) edo Askatasuna plaza. Eta horiek ere baloratu eta erabili egin behar ditugu.

Usurbildarrok askotan erakutsi dugu arduratsuak gara eta badakigula modu kolektiboan lan egiten. Horrelako gorabeherak gertatzen direnean, arategiez eta baimenez harago, ondo legoke bestearen tokian jarritz, malgutasunez, konponbideak bilatzen saiatzea. Udalak horretan ahalegina egiten jarraituko du, izan ere, ditugun baliabideak mugatuak dira eta ahalik eta egokien konpartitu beharrean gaude.

Usurbilgo Udaleko gobernu-taldea

Andoni Sagarna, NOAUA!ren sorreraz: “Oso egoera txarretik gentozen, ez genuen ezer euskaraz”

Ingeniaria, Letretan doktorea. Eta 2006tik hona, euskaltzain osoa. NOAUA! Kultur Elkartearen sorreran hartu zuen parte. #Noauak20 ikusentzunezkoaren grabaketaren aitzakian batu ginen Andoni Sagarnarekin. Eta sorreraz eta etorkizunaz, ondoko adierazpenak egin zizkigun.

NOAUA! Hasiera hasieratik, etxe eta baserri guztietan zabaldu zen aldizkaria. Eta doan. Aldizkaria martxan jartzea bezain garrantzitsua izango zen finantziarioa ziurtatzea, ezta?
Andoni Sagarna. Bai, zalantzarik gabe. Dirua kostatzen dira gauza guztiak... Horrek ere dirua balio zuen.

Herritar guztien bultzada hartu behar da kontuan. Dirulaguntzak eta, nola ez, publizitatea. Gainera, ikusten dut jarraitzen dutela publizitatea ipintzen. Hemengo dendariak ez dira publizitatea jartzeaz aspertu eta hori seinale ona da.

Informazio lokalaren esparrua bete gabe zegoen. Eta herri askotan, hutsune hori euskarazko hedabideek osatu zuten. Akaso hori da orduko loraldia ulertze-



NOAUA!ko lehen lehendakaria izan zen.

ANDONI SAGARNA

“Nik NOAUA!ri bultzada berri bat eskatuko nioke, gazteengan oinarritutako bultzada”

ko gakoetako bat?

Ez da Euskal Herriko kontua bakarrik. Mundu mailakoa ere bada. Batzuk esaten dute globalizazioan badirela bi joera kontrajari. Bata, denok berdintzen gaituena, nolabait esateko. Jantzkeran, ohituretan eta abarretan. Baina bestetik, denok biltzen dugula gure erroak non ote dauden eta horietara atxikitze gogo bat badagoela. Eta hemen ere bai, dudarik gabe. Euskarak eduki dituen arazoe-

kin, are gehiago.

Euskararen normalizazio prozesuan, tresna garrantzitsutzat jo izan dira herri hedabideak. NOAUA! abiarazteko garaian, hori ere pisuzko arrazoi bat izango zen, ezta?

Dudarik gabe. Izan ere, oso egoera txarretik gentozen. Ez genuen ezer euskaraz. Gaurko gazte jendeak, beharbada, ez du hori apreziatzen. Jaio da gauza guztiak martxan zeudela. Euskal prentsa, tokian tokiko prentsa, telebistak... Hori ez da betiko kontua, ezta? Hori noizbait sortu zen. Baldintzak egokiak izan ziren ordukoak eta horrela abiatu ziren. Eta bestetik, herri gogoak bultzada hori ekarri zuten.

Garai eta paradigma berrietara egokitu asmoz, NOAUA! ahalegin handia egiten ari da: noaua.eus, sare sozialak... Toki egokian ikusten al duzu NOAUA?

Euskarri berriak etorri dira eta denak ari gara bide horietatik sartzen. Kontua da euskarria eta bestea edukia. Arrisku bat ikusten dut: inertiarekin jarraitzea. Euskarri berrietara egokitu bai, baina tratamenduak ez izatea garaian garai-koak. Ez da erraza! Gauzak aldatzen dira eta bizkor aldatzen dira gainera. Ahalegin handiena egin beharko litzateke edukien tratamenduan. Berrikuntza bat eskatzen dute, gizartea ere aldatu egin delako.

Eta aurrera begira, zer?

Atzera begiratzea niri gustatzen zait. Zer nolako bidea egin dugun ikusteko ondo dago. Baina batez ere aurrera begiratzea gustatzen zait. Eta aurrera begira, iraupen honi jarraipena eman behar zaio. Baina jarraipena, norekin? Ba bereziki gazte jendearekin. Nik NOAUA!ri bultzada berri bat eskatuko nioke, gazteengan oinarritutako bultzada.

NOAUA! martxan jartzeko jende asko batu zen

NOAUA! 1996ko Sagardo Egunean eginiko argazkia da aldamenekoa. Jende asko zaudete bertan. 20 urteren buruan, zer nolako oroitza-penak dakarzkizu?

Andoni Sagarna. Oroitzapen asko. Herritar asko ikusten ditut argazki honetan. Era guztietakoak. Gazteagoak, zaharragoak, emakumeak gizonak... Horrek esan nahi du mugimendu bat izan zela, mugimendu handia, jende asko bildu zuena.



NOAUA!ko bazkideak, 1996ko Sagardo Egunean.

#Noauak20 ikusentzunezkoa, azaroaren 4an Sutegin

NOAUA! Kultur Elkartek 20 urte bete ditu. Udaberri-tik hona ari gara “ospakizunetan”. Azaroko Kultur Hamabostaldian ere badira urteurrenari propio loturiko hainbat ekitaldi. Tartean, azaroaren 4rako antolatu dugun proiektzioa.

Luis Jambrina NOAUA!ren inguruko ikusentzunezkoa osatzen ari da, eta azaroaren 4an eskainiko dugu Sutegin. 19:00etan, sarrera doan.

Bi astetan, hamaika ekitaldi

#Noauak20

ikusentzunezkoa

Aurtengo maiatzean NOAUA! Kultur Elkarteak 20 urte bete ditu. Urtemuga berezi hau ospatuz ekingo diogu Kulturaldiari, bi hamarkada hauetako NOAUA! K.E.-ren historiari errepasso txiki bat emango dion bideo proiektioarekin.

- Azaroak 4 ostirala.
- 19:00etan Sutegin.
- Doan.



Luis Jambrinak zuzendu du bideoa.

Orbeldi Dantza

Taldearen saio berezia

Maiatzean, Zuberoako Urdirnarben ospatu zen Musikaren Egunean eskaini zuten ekitaldia "herritarren aurrean plaza-ratu nahi dugu. Herrialde ezberdinetako dantzak eskainiko ditugu, dantzak jaso ditugun modu berean eskainiaz".

- Azaroak 4 ostirala.
- 19:30ean Sutegin.
- Sarrera: 3 euro.



Azaroaren 4an, Sutegin.

"Konpasetan: bidaia intimo bat" errezitaldia

Emakumeen Egunaren karietara, 2016ko apirilean estreinatua zen *Konpasetan: bidaia intimo bat emakumeen istorioetan zehar*. Musikaren historian zehar ibilbide xume bat egitea du helburu.

- Garazi Kamio, Susana Cencillo.
- Azaroak 5 larunbata.
- 20:00etan Sutegin.
- Doan.



Garazi Kamio eta Susana Cenciloren lana.

Xabi Solanorekin: "Bere ibilbidea musikan"

Azaroaren 10ean osteguna, Usurbila etorriko da bere musika ibilbidea azaldu eta ikusleen galderak erantzutera. Baita berak oso ongi dakiena egitera ere, bere instrumentuekin bere musikaz gozatzeko aukera ere izango dugu Sutegin.

- Azaroak 10 osteguna.
- 19:30ean Sutegin.
- Doan.



Sutegin izango da azaroaren 10ean.

Kantu-jira eta kantu-bertso-afaria

Kantu Taldekoen eskutik, kalez kale girotuko duen kantu-jira Kaxkoan zehar. Segidan, kantu eta bertso afaria, lagun arte giro goxoan Artzabal jatetxean.

- Azaroak 11 ostirala.
- 19:00 Kantu Jira.
- 21:00 Afaria Artzabalen.
- Txartelak 20 eurotan salgai NOAUA!n, Artzabalen, Bordaxton eta Lizardin.



Irazu eta Alberdi arituko dira kantuan.

Antzezlanak: "Non gaude?"

"AJE trilogiaren hirugarren zatia duzue honakoa. 'Grebana gaude' eta 'Prest gaude!' izan ziren aurrekoak. Oraingoan non gauden ere ez dakigu!".

- Azaroak 12 larunbata.
- 20:00etan Sutegin.
- Sarrera: 7 euro. NOAUA!ko bazkideek 5 euro (NOAUA!ko egoitzan eta aldeztatik erosituta).



Umorea nagusi da antzezlan honetan.

Ruper Ordorika eta Mugalarien kontzertua

'Guria ostatuan' izeneko disko berritik zenbait kantu lehenengoz aurkezteaz gain, bere ibilbide oparoan sortutako beste hainbat kantu eraberrituko ditu.

- Azaroak 13 igandea.
- 19:00etan Sutegin.
- 10 euro. NOAUA!ko bazkideek 8 euro (NOAUA!ko egoitzan eta aldeztatik erosituta).




Disko berria aurkeztuko du Sutegin.

#Noauak20 erakusketa, astebetean Sutegin

Bi hamarkada hauetako hainbat bizipen oroitzeko aukera izango dugu Sutegin antolatutako erakusketan. Bideo proiektio batekin osatzen da erakusketa.

- Azaroak 4 (18:30-20:30).
- Azaroak 7, 8, 9, 10, 11 (18:00-20:00).
- Azaroak 12, 13 (eguerdiz, 12:00-14:00).
- Sutegiko erakusketa aretoan.



Astebetean Sutegin egongo da ikusgai.

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

urdaintzi@euskalnet.net

ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392

uraitz@uraitz.com USURBIL

Erraustegiaren “hondamendia” salatzeko mobilizazio jendetsua

Zuen negozioa, guztion minbizia eta hondamendia aldarriean erraustegiaren aurkako mobilizazio jendetsua egin zuten urriaren 15ean Donostian; Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Santander Bankuaren parean. Lurrean etzanda eta maindire txuriek estalita irudikatu nahi izan zuten, Zubietan eraiki nahi diguten plantak, gure poltsiko, ingurumen eta osasunerako ekarriko duen kaltea. Erraustegia eraikitzearen kontura irabaziak eskuratuko dituzten enpresa eta bankuak ere seinalatu nahi zituzten.

Mobilizazioa Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak deitu zuen. “Gure esku dagoen guztia egingo dugu erraustegite-planta ez eraikitzeko, baina



Urriaren 15ean egin zen Donostian; Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Santander Bankuaren parean.

eraikitzen badute ere, ez dugu guguk finantzatu! Jakin dezatela banku honetako zuzendariak gure diruarekin ez dutela kontaktzen”, salatu dute.

Ingurumen baimena errekurritzeaz

Astearte honetan egitekoa zen

osoko ohiko bilkuran, erraustegiaren ingurumen baimen bateratua auzibidean errekurritzeko dekretua berretsi edo ez erabaki behar zuten udal ordezkariak.

Udalbatzak hartutako erabakiaren berri, datorren astekean izango duzue.

Zorraren Festa, larunbatean Hernanin

“Gipuzkoako erregimena errefuxara” aldarriean, Erraustegiaren Zorraren Festa deitu du Gipuzkoa Zutik mugimenduak, urriaren 29rako Hernanin:

Urriak 29, larunbata

■ 12:00 Arduradunen martxa alaia Plaza Berritik GHK-ra, Errausketaren Aurkako Mugimenduarekin (ekarri tresna zaratatsuak).

■ 14:00 Herri bazkaria. Ondoren:

■ Bertsoak: Ane Labaka eta Mainer Arregi.

■ Poesia musikatua: “Pobresiak”.

■ Umeentzat jolasak eta margoketa tailerra.

■ Kontzertuak: DJ Miau, Morau eta Duo D’Oporto.

Antolatzaileak: Gipuzkoa Zutik.

Goi-tentsioko linea eraiki nahi dute orain

Zubietako erraustegia sare elektrikora lotzeko goi-tentsioko linea berri bat eraiki nahi du Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak, Lasarte-Oriako Aire Garbia Herri Plataformak ohartarazi duenez. Dagoeneko Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailarekin alde aurretikako kontsultak hasi dituela berri eman dute.



Linea berria, 132 kV-koa, erraustegian bertan hasi eta sare nagusiarekin Urnietan lotuko litzateke, Elutsetako harkaitzen inguruan.

“Linea berria, 132 kV-koa, erraustegian bertan hasi eta sare

nagusiarekin Urnietan lotuko litzateke, Elutsetako Arkaitzen

inguruan. Guztira, 5 kilometro, Zubieta, Lasarte-Oria (batez

ere), Andoain (zati txiki batean) eta Urnietan barrena. Desjabezteak ere aurreikusten dituen proiektu honek 8 milioi euroko aurrekontua du. GHK-k berak % 60 ordainduko luke eta Donostiako Udalak % 40. Linea hau garrantzitsua da erraustegirako, eta, Aire Garbiaren iritziz, horren berri ematea ere garrantzitsua da, batez ere proiektu honekin zerikusia duen guztia isilean tramititzen saiatzen ari direla kontuan izanik”, adierazi dute.



EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITAR TEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus



ANORGA TXIKI S.L.

KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak · beira bikoitza
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, hemen aurkituko dituzu:

- * NOAUA! * Udaletxea
- * Kiroldegia * Saizar * Eroski City
- * Aginagako Arrate taberna
- * Zubietako Alamandegi taberna

Edo deskargatu ezazu www.noaua.eus-etik!

tren eta autobus

noaua

ordutegia 16/17

Santu guztien egunean ere berziklatu!



Plastiko nahasketa



Landare, kima eta belarrak



Kartoa beti plegatua

Papera eta Kartoa



Errefuxa



Usurbilgo Udalea



Atez Ateko Informazio Bulegoa-Jose Martin Sagardia plaza z/g-Tel:900 776 776-atezate@usurbil.eus

Usurbil F.T.-ren 40. urteurren festa, iruditana

Eskerrik asko larunbatean gurekin egon zineten guztiei. Zuen irribarreak ikus-teak ez dauka preziorik. Usurbilen dantzari finak garela argi geratu zen. 40.urteurrena ospatzeko egun paregabea izan zen eta dena zuei esker. Baina hau ez da bukatu! Aurrerantzean egingo ditugu ekitaldi gehiago. Gora zuek eta gora U.F.T.!", hitzokin eskerrak eman nahi izan dizkie Usurbil F.T.-k, urtemuga festara batu ziren guztiei.



Pasa den larunbatean, Usurbil FT taldearen 40. urteurrena ospatu zuten Saizarren.

Taldeko argazki erraldoia ateratu zuten, lehendakari izan-

dakoak omendu, bazkari eder baten bueltan bildutako 200 la-

gunek oroitzapenak berriro eta Dj Larrak dantzan jarri zituen

guztiak. Festa egun ederra bizi izan zuten. Zorionak!



“Gurasoen hizkuntza-ohiturak bereganatzen dituzte ikasleek”

Azken urteotan gaztele-raren erabilera areagotu dela ikusita, familia barruko hizkuntza erabileran eta transmisioan eragin nahi dute Udarregi Ikastolak eta Etumeta AEK euskaltegiak. Horregatik, Usurbilgo Udalarren laguntzaz, gurasoak euskalduntzeko ikastaroa antolatu dute. Ostiral hau, urriaren 28ra arteko tarteak dute 2-12 urte arteko haur eta gaztetxoak aita amek, ikastolan bertan edo euskaltegian matrikulatzeko.

Azaroaren 14tik maiatzera luzatuko den ikastaroa, astean bi ordukoa izango da. Ikastolan eskainiko du, euskaltegiko irakasle batek. Matrikulatzen direnei, azaroaren 3an egingo zaie mailaketa proba. Ikastaroan parte hartzea animatzen dute, eremu honetan lanean diharduen Udarregi Ikastolako HIZPRO lan taldeak.

NOAUA! Zertan eragin nahi du zue ikastaro honen bidez?

HIZPRO: Gurasoak euskalduntzea eta familien erabileran eragitea.

Ikastaroa zergatik gurasoen-tzat?

Gurasoak seme-alaben eredu dira, ez dugu zalantzarik egiten edozein zaletasun transmititzeko duten gaitasunean; hala nola, kirolzaletasuna, irakurzaletasuna... Hortaz, edozein hizkuntzarekiko izan dezaketen jarrera transmititzeko gai dira, baita noski, euskararekiko jarrera positiboa ere.

Ikastolak begi onez ikusi du AEKrekin elkarlanean ikastaro hau antolatzea. Udarregi Ikastolan, HIZPRO lan-taldean eremu honetan lanean zabilzate lehendik ere. Zein da lan-talde honen egitekoa?



Urriaren 28ra arteko epea dute 2-12 urte arteko haur eta gaztetxoak aita amek, ikastolan bertan edo euskaltegian matrikulatzeko.

HIZPRO LAN TALDEA

“Gurasoak seme-alaben eredu dira, ez dugu zalantzarik egiten edozein zaletasun transmititzeko duten gaitasunean; hala nola, kirolzaletasuna, irakurzaletasuna... Hortaz, edozein hizkuntzarekiko izan dezaketen jarrera transmititzeko gai dira, baita noski, euskararekiko jarrera positiboa ere”

Ikastolan euskara ardatz izanik, ikasle eleanitzak sortzen laguntzea da gure xedea. Bestalde, ekintza ezberdinak antolatzen ditugu (Euskararen Eguna, guraso eskolak, hizkuntza jolasak, motibazio saioak eta esamoldeen lanketa...) erabilerara bultzatzeko eta euskararekiko jarreretan eragiteko.

Azken urteotan erdararen erabilera areagotu omen da gurasoen artean. Hala al da? Zer giro sumatzen duzue?

Ikastolaren inguruan gero eta gehiago entzuten dugu eta

azken 6-7 urte hauetan gaztele-raren erabilera areagotu da. Hori horrela izanik, iaz hiztun neurketak burutu genituen eta datu adierazgarriak jaso genituen.

Erdararen erabileraren areagotzeak eraginik ba al du ikasleengan?

Jakina. Maila akademikoan antzematen da eta azken ebaluazio diagnostikoan jasotako emaitzak horren isla izan ziren. Lehen aipatu bezala, gurasoak eredu diren heinean, euren hizkuntza-ohiturak bereganatzen dituzte ikasleek.

Urriaren 28ra arte dago ikastaroan izen emateko epea. Zer profiletako gurasoak erakarri nahi dituzue ikastarora?

2-12 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoek erakarri nahi ditugu. Izan ere, hauek izan daitezke seme-alabengan eragin handien izan dezaketenak.

Besterik erantsi nahi?

Gurasoak animatu nahi ditugu horretara, ikastolako parte garrantzitsu direlako eta ikastolak dituen helburuetan ezinbesteko direlako.

Izena eman edo informazio gehiagorako:

- Nagusia, 43
- 607 609 379
- usurbil@aek.eus
- munteri.blogspot.com.es


Literaturaz, lagun artean

Sutegi udal liburutegian literatura topaketak antolatzen dituzte. Urriaren 19an, Kati Agirrerren “Atertu arte itxaron” liburua izan zuten hizpide. Ostegun honetan aldiz, Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saioa antolatu dute, 18:00etan liburutegian bertan, HH5ekoentzat.

Azaroaren 2rako, Pello Añorgaren ipuin kontaketa saioa antolatu dute: 18:00etan liburutegian bertan, 6 urtetik gorakoentzat.



Urriaren 19ko literatur topaketan ‘Atertu arte itxaron’ aztertu zuten.



Klik! batean

Udazken koloretan

“Eskuratu hostoa
xume bezain eder,
hain soila bere heriotzean,
zuhaitz guztiaren
bizkortasunez hain betea,
non erortze honen
duintasunak
hiri kantatzera naraman”,
Benito Lertxundi.

Argazkia: Ion Markel



%97,9ak ezezko borobila eman dio erraustegiari

Ezezko borobila eman dio herri honek erraustegiari. Hala zioten Erraustegia Erabakia Herri Plataformako kideek, aurreko asteburuan zehar egin zen galdeketa emaitzak frontoian aurkezterakoan. Ez da gutxiagorako. Bozka eman zuten usurbildar eta zubietarren %97,9ak ezezkoa eman baitzion erraustegiari. Ez dute erraustegirik nahi. Argiago ezin zuten esan. Aipatzeko beste datua, parte hartzearena; Zubietakoa %64,7koa izatera heldu zen.

Datuok eskutan, ezin zitekeen beste modu batean izan; balorazio positiboa egin dute herri plataformatik. “Erraustegia Erabakia plataformak oso era positiboan baloratu du asteburu honetan Usurbil eta Zubietan egin den galdeketa. Lehenik eta behin, %43,6 partaidetza lortzea datu arrakastatsua dela deritzogu. Herriar talde batek antolatutako galdeketa izan dela kontuan hartuta –hau da, erakundeetatik at– aurreikusi genezakeen partaidetza eta antzeko ekimenetan ohikoa dena gainditu egin da. Parte hartzearen gaiaren inguruan eta aurrekoa datu orokorra izanda, aipamen berezia merezi du Zubietako eremuan lortutako markak, bertako erroldaren %64,7koa izatera heldu baita”, nabarmendu dute ohar bidez.

Bilera erronda erakundeekin

Inork uka ezin ditzakeen emaitzak direla azpimarratzen dute plataformatik, “hemendik aurrera, agintariak aintzat hartu beharko luketena”. Horren harira, emaitzok



Igandean, gaueko 20:00ak aldera hasi zen botoen zenbaketa publikoa.

ERRAUSTEGIA ERABAKIA

“Gipuzkoako Foru Aldundiari, Donostia eta Usurbilgo Udalari eta Batzar Nagusietako talde guztiekin eskatuko ditugu hitzorduak, kezka eta eztabaida maila handia sortu duen erraustegiaren proiektuaren inguruan, Zubietan eta Usurbilgo biztanleen iritzia zein den zuzenean azaltzeko asmoarekin”

zuzenean azaltzeko hainbat hitzordu eskatzekoak ziren erakundeekin, aste hasieran. “Gipuzkoako Foru Aldundiari, Donostia eta Usurbilgo Udalari eta Batzar Nagusietako talde guztiekin eskatuko ditugu hitzorduak, kezka eta eztabaida maila handia sortu duen

erraustegiaren proiektuaren inguruan, Zubietan eta Usurbilgo biztanleen iritzia zein den zuzenean azaltzeko asmoarekin”, iragarri dute.

“Posible egin duten guztiei, mila esker”

Herritarrek zoriondu eta galdeketa ahalbidetu duten laguntzaile guztien lana eskertu dute. “Pozik gaude egindako lanarekin eta erabat eskertuta lan hau aurrera ateratzea ahalbidetu duten herritar guztiekin. Lagun asko izan ditugu azken hilabete hauetako ibilbidean eta galdeketa gauzatzea eta modu onean eramatea posible egin duten guztiei ere gure esker berezia adierazi nahi diegu; Berme Batzordearen jardunean eta mahaietan bolondres bezala aritu diren pertsona guztiei, bereziki”, adierazi dute Erraustegia Erabakia Herri Plataformatik.

Behin betiko emaitzak

Parte hartzea

Usurbilen eta Zubietan:
2.317, %43,6.
(Errolda: 5.312).

Zubietan:

244, %64,7.
(Errolda: 377).

Erraustegia egitea nahi al duzu?

Usurbil osoan:

Ez: 2.268, %97,9.
Bai: 39, %1,7.
Txuriak: 8.
Baliogabeak: 2.

Zubietan:

Ez: 243, %99,6.
Bai: 1, %0,4.

Arrakasta handia izan du lip dub-ak

Arrakastatsua izan zen urriaren 21ean Mikel Laboa plazan egin zuten jendaurreko aurkezpena. Eta arrakasta sarean islatu da gero. Asteburuko herri galdeketa girotzeko Erraustegia Erabakia Herri Plataformak 800 herritar baino gehiagoren laguntzaz urriaren 16an grabaturiko lip-dubak aste hasierarako 5.000 ikustaldi zituen Youtuben. Herritarrek ikus ditzakezue jai giroan, Fermin Muguruzaren "Hitza har dezagun" abesti ezagunaren erritmora, dantzan eta abesten. Erraustegiaz hitza hartu nahi dutela aldarrikatzen.



Bideoak dagoeneko 5.000 bisita baino gehiago izan ditu.

Azaroaren 26an manifestazioa Donostian, GuraSOsek deituta

Erraustegiaren lizitazioa geratu, parte hartze prozesua irekitzea eskatu eta gai honen inguruan oraindik adostasuna lortzeko garaiz gaudela aldarrikatzeko manifestazioa deitu du GuraSOsek azaroaren 26rako Donostian. Laster emango dute mobilizazio honen inguruko xehetasun gehiagoren berri. "Zu ere zure herrian ekimen hau bultzatzeko prest bazaud, jarri harremanetan komunikazioa@gurasos.org helbidera idatziz", adierazi dute haien seme-alabengan erraustegiak izan dezakeen eraginaz kezkatua dagoen guraso taldeak.



Laster emango dituzte mobilizazioaren inguruko xehetasun gehiago.

txirriStra
TABERNA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak


Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus



Galdeketa Aginaga, Santuenea, Zubieta eta Kaxkoan egin zen. Asteburuak irudi asko utzi zituen.

Oso ondo pasa genuen Aquarium-en

Orain dela egun batzuk, HH5ekoak txango eder bat egin genuen. Goizean trenuz Donostiaraino joan ginen eta Kontxako hondartzan ederki jolastu ginen. Ondoren Alderdi-Ederren hamaiketako egin eta kaian barrena Aquarium-era joan ginen. Han gida-lagun batzuk gure zain zeuden eta Aquariumeko hainbat gauza erakutsi zizkiguten. Oso ondo pasa genuen eta asko ikasi genuen itsas-munduaren inguruan. Zuekin partekatu nahi ditugu ikasitako gauza interesgarri batzuk:

Aquariumeko marrazoak haundiak dira: Kontxita eta Txuri dira, marrazo arrak bi zakil ditu. Dortoka, Lolita, gaixo zegoen, marmokak jaten ditu. Sendatzean askatu egingo dute eta itsasora joango da. Arrain batzuk zizta egiten dute, beste batzuk pozoiitu, eskorpioi arrainak eta xabiroiak dira. Marmokak ere, ukitzen bazai-



“Gida-lagun batzuk gure zain zeuden eta hainbat gauza erakutsi zizkiguten”.

